GetxoModak bere 38. edizioa ospatuko du, Euskadiko ibilbide handiena duen pasarela gisa sendotuz

- **Ekitaldia azaroaren 6an izango da, eta tradizioa eta modernitatea, dotorezia eta iraunkortasuna uztartuko ditu, berrikuntza, hurbileko merkataritzaren sustapena, euskal diseinatzaile eta nazioarteko proiekzioa duten enpresen alde eginez**

- **Gaur goizean bertan, Algortako Portu Zaharrean (Getxo) aurkeztu dira ekitaldiaren xehetasun guztiak**

Getxo, 2025eko urriaren 24a.- Ia lau hamarkadako ibilbidearekin, GetxoModa ekimenak **tokiko modaren, sormenaren eta merkataritzaren erreferente** izaten jarraitzen du. Horrela, Euskal Herrian historia gehien duen pasarelak bere 38. edizioa ospatuko du azaroaren 6an, osteguna, Getxo lehen mailako helmuga komertzial, turistiko eta kultural gisa bultzatuz, non inguruaren edertasunak bat egiten duen nazio eta nazioarte mailako diseinatzaileen, saltokien eta enpresen talentuarekin.

Gaur goizean bertan, Algortako Portu Zaharrean (Getxo) aurkeztu dira ekitaldiaren xehetasun guztiak. Ekitaldian **Elena Cantera** Getxo Enpresa – (GetxoModa ekimenaren entitate antolatzailea) Getxoko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen elkarteko presidenteak eta **Juanma González** Getxolango zinegotziaak parte hartu dute, eta **Olatz Goitia** Beaz-Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendari nagusia ere bertan izan da.

GetxoModa Getxoenpresak antolatzen du, Getxoko Udala du partner gisa, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo eta Merkataritza Zuzendaritzaren eta BEAZ- Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa du.

Aurten, GetxoModa 38k tradizioa eta modernitatea, dotorezia eta iraunkortasuna uztartzen ditu, berrikuntzaren, hurbileko merkataritzaren sustapenaren, euskal diseinatzaileen eta nazioarteko proiekzioa duten enpresen aldeko apustua eginez. Izan ere, hitzordua Basque Styleren erakusleiho gisa finkatu da, Euskadin egindako modari eta sorkuntza arduratsuarekiko konpromisoari balioa emanez. Nazioarteko diseinatzaileen proiekzioaren aldeko apustuaren bidez, Getxo modaren hirien mapan jartzen du.

Basque Biodesign Center, bio-joskintzari eta diseinu jasangarriari buruzko Europako erreferentzia-gunea

Hitzorduan zehar, Basque Biodesign Center-eko esku-arropaz gozatzeko aukera izango dute bertaratutakoek. Gueñesen kokatua, bio-joskintzan eta diseinu iraunkorrean erreferentzia europarra da zentroa, artea, zientzia eta teknologia uztartzen dituena. Etorkizuneko materialetan berrikuntza sustatzen du, bioplastikoekin, ehun organikoekin eta tindu naturalekin esperimentatuz, kultura-erakundeekin lankidetzan arituz eta biomaterialetan egoitzak eta prestakuntza eskainiz. Helburua sormen iraunkorra bultzatzea eta Euskadi diseinu bioteknologikoan aitzindari gisa kokatzea da. Zentroak ikerketa zientifikoa praktika sortzailera hurbiltzen du, zinemarako, antzerkirako edo dantzarako jantzien diseinutik hasi eta Guggenheim, Artium edo Tabakalera bezalako museoekiko lankidetzetara bitarteko proiektuak garatuz.

Oraingo honetan, ***Biokinesis*** bildumaren bidez, zentroak biologia eta diseinua lotuko ditu, mikelio, zelulosa eta algak bezalako biomaterialen bidez. Forma naturaletan eta hazkunde-prozesuetan oinarrituta, teknologia, artea eta natura uztartzen dituen moda bizia eta birsortzailea proposatzen du. Bilduma naturan dauden patroi parametrikoetan eta geometria organikoetan oinarritzen da. Emaitza janzten ez ezik, ingurunearekin hitz egiten duten piezak dira.

Miriam Ocarizi omenaldia: artearen eta modaren Ibilbidea

2025. edizioak Miriam Ocariz diseinatzailea omenduko du, **euskal diseinuaren irudi enblematikoa eta artearen, modaren eta ehungintzaren esperimentazioaren arteko fusioan aitzindaria**. 30 urte baino gehiagoko ibilbidearekin, bere lanak mugak gainditu ditu, Paris, New York, Hong Kong edo Tokio bezalako eszenatokietara iritsiz. GetxoModako aintzatespenak, benetakotasunak, sormenak eta jasangarritasunak markatutako ibilbidea ospatzen du.

Diseinatzaileak eta denda protagonistak

Ekitaldian, besteak beste, **Charo Álvarez, Borja Hernández (BHUGETXO), Txaro Rodríguez eta Luis Uribetxebarria diseinatzaile eta tokiko enpresek** parte hartuko dute. Bere bildumen bitartez, GetxoModak euskal talentuaren aniztasuna erakutsiko du, non artisautza, berrikuntza eta emozioa proposamen bakarretan elkartzen diren.

Getxoko **moda, bitxigintza, optika eta estetikako** 27 saltoki inguruk ere bat egingo dute edizio honekin, tokiko ehun komertzialaren indarra eta kalitatearekiko eta hurbiltasunarekiko konpromisoa berretsiz.

Aitorpena Charo Izquierdori

Gainera, GetxoModa 38k omenaldi berezia egingo dio Charo Izquierdo **kazetari eta komunikazio, moda eta iraunkortasunaren erreferentea**ri. Lidergoak eta konpromiso sozialak markatutako bere ibilbideak sektorearen funtsezko ahots eta belaunaldi berrientzako inspirazio bihurtu du. Yo Dona, Grazia edo Mercedes-Benz Fashion Week Madrid bezalako proiektu enblematikoen buru izan da.

Mariano Moreno, goi mailako joskintzaren etorkizuna

Mariano Moreno moda diseinatzailea omenduko dute Aixerrotako errotarekin eta pasabidea itxiko du. Moreno moda diseinatzaileak, **ezkontza-unibertsoan eta goi-mailako joskintzan duen ikuspegi berritzailea**gatik ezaguna. Bere lana tradizioa berrinterpretatzeagatik nabarmentzen da, begirada garaikide, sofistikatu eta jasangarri batekin, fantasiaren magia eta denboraz kanpoko dotorezia uztartuz. Munduko moda etxe ospetsuenentzat lan egin du, hala nola Givenchy, Lanvin, Chloé, Pronovias eta Rosa Clarárentzat, 2023an izen bereko marka sortu aurretik, Parisen eta Bartzelonan egoitzekin. Bere sinadurarekin, Mariano Morenok emaztegai-soinekoak, koktela, goi-mailako joskintza eta osagarriak sortzen ditu, emakume modernoa sormenaren eta benetakotasunaren bidez ahalduntzeko sortutako piezak.

Getxo bultzatzen duen ekitaldia

Pasarelaz gain, GetxoModa 38k **udalerri berezi baten erakargarritasuna berraurkitzera** gonbidatzen gaitu, merkataritza, ostalaritza eta hotel eskaintza zabala

eta zaindua uztartzen baititu. Hala, Getxo erreferentziazko helmuga gisa finkatu da Bizkaian. Bertan, tokiko merkataritza joera berriekin integratzen da, gertuko esperientzia, kalitatezkoa eta egoiliarrei zein bisitariei irekia eskaintzeko.